



ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA
Duque de Mandas, 11, bajo / Mandasko Dukea, 11, behea
20012 DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
Tel: 943 44 01 18 – Fax: 943 42 06 20 Email: secretaria@icagi.net

San Sebastian, 24 de mayo del 2013

El pasado 15 de mayo entró en vigor la Ley 1/2013, de 14 de mayo, de medidas para reforzar la protección a los deudores hipotecarios, reestructuración de deuda y alquiler social, cuyo articulado modifica, entre otros muchos, los artículos 552, 557, apartado 1 y 561 apartado 1, en relación con la apreciación de la nota (o carácter) abusiva en cláusulas contenidas en títulos ejecutivos, indicando, entre otros, que "el auto que se dicte determinará las consecuencias de tal carácter, decretando bien la improcedencia de la ejecución, bien despachando la misma sin aplicación de aquéllas consideradas abusivas."

Ahora bien, ha de tenerse en cuenta la importante limitación temporal que al respecto contiene la disposición transitoria 4ª de la propia Ley 1/2013, referente a los procedimientos ejecutivos en curso, **que establece un plazo de un mes para formular incidente extraordinario de oposición**, desde la entrada en vigor de esta Ley. Su texto es el siguiente:"

" Disposición transitoria cuarta. Régimen transitorio en los procesos de ejecución.

1. La modificaciones de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, introducidas por la presente Ley serán de aplicación a los procesos de ejecución iniciados a su entrada en vigor, únicamente respecto a aquellas actuaciones ejecutivas pendientes de realizar.

2. En todo caso, en los procedimientos ejecutivos en curso a la entrada en vigor de esta Ley en los que haya transcurrido el periodo de oposición de diez días previsto en el artículo 556.1 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, las partes ejecutadas dispondrán de un plazo preclusivo de un mes para formular un incidente extraordinario de oposición basado en la existencia de las nuevas causas de oposición previstas en el apartado 7.a del artículo 557.1 y 4.a del artículo 695.1 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

Donostian, 2013ko maiatzaren 24

Joan den maiatzaren 15ean zordun hipotekarioen babesa indartzeko eta zorra eta alokairu soziala berregituratzeko neurrien maiatzaren 14ko 1/2013 Legea sartu zen indarrean, eta horren artikuluek, beste gauza askoren artean, 552, 557 (1. apartatua) eta 561 (1. apartatua) artikulua aldatzen dituzte, titulu betearazleetan jasotako baldintzetan neurrigabeko izaera aitortzeari dagokionez, eta adierazten dute, besteak beste, "xedatzen den autoak erabakiko dituela izaera horren ondorioak, eta hala, exekuzioaren desegokitasuna dekretatu daiteke, edo bestela, hori bideratu, neurrigabetzat jo direnak aplikatu gabe."

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da 1/2013 Legeak berak bere 4. xedapen iragankorrean jasotzen duela denbora-muga garrantzitsu bat duela, eta horren arabera, **hilabeteko epea finkatzen dela aurka egiteko ezohiko intzidentea gauzatzeko**, Lege hau indarrean sartzen den unetik hasita. Horren testua ondorengo hau da:"

"Laugarren xedapen iragankorra. Erregimen iragankorra exekuzio-prozesuetan.

1. Prozedura Zibilaren gaineko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen aldaketak –Lege honek jasoak– hura indarrean sartu zenean hasitako exekuzio-prozesuetan aplikatuko dira, baina bakar-bakarrik oraindik gauzatzeko dauden jarduera betearazleei dagokienez.

2. Nolanahi ere, Lege hori indarrean sartu zenean abian ziren exekuzio-prozeduretan, Prozedura Zibilaren Legeko 556.1 artikuluan aurka egiteko aurreikusitako hamar eguneko epe hori igaro baldin bada, alderdi exekutatuak hilabete bateko epe barneratzaile bat izango dute aurka egitearen ezohiko intzidentea aurkezteko, Prozedura Zibilaren Legeko 557.1 artikuluko 7. apartatuan eta 695.1 artikuluko 4.a apartatuan aurreikusitako aurka egiteko arrazoi berriak daudela oinarritzat hartuta.



ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA
Duque de Mandas, 11, bajo / Mandasko Dukea, 11, behea
20012 DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
Tel: 943 44 01 18 – Fax: 943 42 06 20 Email: secretaria@icagi.net

El plazo preclusivo de un mes se computará desde el día siguiente a la entrada en vigor de esta Ley y la formulación de las partes del incidente de oposición tendrá como efecto la suspensión del curso del proceso hasta la resolución del incidente, conforme a lo previsto en los artículos 558 y siguientes y 695 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

Esta Disposición transitoria se aplicará a todo procedimiento ejecutivo que no haya culminado con la puesta en posesión del inmueble al adquirente conforme a lo previsto en el artículo 675 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

3. Asimismo, en los procedimientos ejecutivos en curso en los que, a la entrada en vigor de esta Ley, ya se haya iniciado el periodo de oposición de diez días previsto en el artículo 556.1 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, las partes ejecutadas dispondrán del mismo plazo preclusivo de un mes previsto en el apartado anterior para formular oposición basada en la existencia de cualesquiera causas de oposición previstas en los artículos 557 y 695 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

4. La publicidad de la presente Disposición tendrá el carácter de comunicación plena y válida a los efectos de notificación y cómputo de los plazos previstos en los apartados 2 y 3 de este artículo, no siendo necesario en ningún caso dictar resolución expresa al efecto.

5. Lo dispuesto en el artículo 579.2 de la Ley de Enjuiciamiento Civil será de aplicación a las adjudicaciones de vivienda habitual realizadas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, siempre que a esa fecha no se hubiere satisfecho completamente la deuda y que no hayan transcurrido los plazos a los que se refieren las letras a) y b) del citado artículo. En estos casos, los plazos anteriores que vencieran a lo largo de 2013 se prolongarán hasta el 1 de enero de 2014.

Hilabete bateko epe barneratzaile hori Lege hau indarrean sartu eta biharamunetik kontatzen hasiko da, eta aldeek aurka egitearen intzidentea aurkezteak berarekin ekarriko du prozesua bertan behera uztea intzidente horri buruz ebatzi arte, Prozedura Zibilaren Legeko 558 artikuluan eta hurrengoetan eta 695 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Prozedura Zibilaren Legeko 675 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz higiezinaren jabetza eskuratzaillearen esku uztea eragin ez duten prozedura betearazle guztietan aplikatuko da Xedapen iragankor hau.

3. Nolanahi ere, Lege hori indarrean sartu zenean abian ziren exekuzio-prozeduretan, Prozedura Zibilaren Legeko 556.1 artikuluan aurka egiteko aurreikusitako hamar eguneko epe hori hasia baldin badago, alderdi exekutatuak aurreko apartatuan aurreikusitako hilabete bateko epe barneratzaile bera izango dute aurka egiteko, Prozedura Zibilaren Legeko 557 eta 695 artikuluetan aurka egiteko aurreikusitako arrazoiak edozein gertatu dela oinarritzat hartuta.

4. Xedapen honen argitalpenak komunikazio oso eta baliagarriaren izaera izango du artikuluko honetako 2 eta 3 apartatuetan aurreikusitako epeak jakinarazteari eta zenbatzeari begira, eta ez da beharrezko izango inola ere horretarako berariazko ebazpenik ematea.

5. Lege hau indarrean sartu aurretik egindako ohiko etxebizitzaren esleipenei aplikatuko zaie Prozedura Zibilaren 579.2 artikuluan xedatutakoa, betiere data horretan ez baldin bada zorra erabat kitatu eta ez badira artikuluko horretako a) eta b) letrek aipatutako epeak igaro. Kasu hauetan, 2013. urtearen barruan mugaeguneratzen diren aurreko epe horiek 2014ko urtarrilaren 1 arte luzatuko dira.



ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA
Duque de Mandas, 11, bajo / Mandasko Dukea, 11, behea
20012 DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
Tel: 943 44 01 18 – Fax: 943 42 06 20 Email: secretaria@icagi.net

La aplicación de lo previsto en este apartado no supondrá en ningún caso la obligación del ejecutante de devolver las cuantías ya percibidas del ejecutado.”

Si tuvieras alguna duda en relación con la Oposición a la Ejecución, y/o a la abusividad de una o más cláusulas, sea en relación con la aplicación de esta Ley 1/2013, o con algunos de los Reales Decretos en vigor, o con la Jurisprudencia del TJUE o el TS, en la misma materia o a los mismos sujetos, la Junta de Gobierno pone a tu disposición a los Letrados y Letradas del Grupo de Trabajo, que podrás contactarlos a través de la Secretaría del Colegio.

Apartatu honetan aurreikusitakoa aplikatzeak ez du inola ere esan nahi betetzailleak jada jasotako zenbatekoak itzultzeko obligazioa duenik.”

Exekuzioaren Aurka Egiteari buruz edo baldintza baten edo gehiagoren neurrigabeko izaerari buruz zalantzaren bat baldin baduzu, dela 1/2013 Lege honen aplikazioarekin loturik edo dela indarrean dauden Errege Dekretuetako batzuekin loturik, edo EBJAren edo AGaren Jurisprudentziarekin loturik, gai horretan bertan edo subjektu berberen inguruan, Gobernu Batzordeak zure esku jarriko ditu Lan Taldeko Abokatuak, eta Elkargoko Idazkaritzaren bitartez jarri ahal izango zara horiekin harremanean.

El Secretario de la Junta
de Gobierno

Francisco Javier Segura Díaz de Espada

Gobernu Batzordearen
Idazkariak

Francisco Javier Segura Díaz de Espada